

2017KO MAIATZEKO EFEMERIDEAK

(Ordu guztiak denbora unibertsalean eman dira, gehitu 2 ordu ofiziala kalkulatzeko)

Poloetan kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 0 Km/h

Ekuadorean kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 1.668 Km/h

Donostian kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 1.220 Km/h

BEHAKETA PROPOSAMENAK

-Begi hutsez:

-Hilaren 5ean, 01:00etan, Delta Cephei izar aldakorren distira maximoa. Magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 5,366 egunean behin. Hilaren 10ean, 15ean, 21ean, 26an eta 31an izango dira beste maximoak.

-Hilaren 6an, 14:00etan, Eta Aquilae izar zeifeidarraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 7,177 egunean behin. Hilaren 13an, 20ean, 28an izango dira beste maximoak.

-Teleskopioarekin:

-Hilaren 12an, Europa eta Io-ren itzalak ikus daitezke Jupiterren azalera.

-Hilaren 15ean, Europa, Ganimedes eta Calisto berezko ordenean ikusi ahal izango Jupiterren mendebaldera.

ILARGIA MAIATZEAN

03 02:48tan, Ilgora.

04 librazio maximoa longitudean ($l = 6,8^\circ$).

04 09:54etan, konjuntzio geozentrikoan Leoko Regulo izarrarekin, 0,5^{ra}.

04 10:45etan, Goranzko nodotik pasatuko da.

07 23:01etan, konjuntzio geozentrikoan Jupiterrekin, 2,0^{ra}.

08 17:19etan, konjuntzio geozentrikoan Virgoko Spica izarrarekin, 6,1^{ra}.

10 21:44etan, Loreen Ilbetea.

11 librazio minimoa latitudean ($b = -6,5^\circ$).

12 19:39tan, Apogeotik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena: 406.216 Km.

(aurreko perigeoan baino 46.875 km gehiago).

13 22:56etan, konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin, 3,1^{ra}.

19 00:34tan, Ilbehera.

19 01:26tan, beheranzko nodotik pasatuko da.

20 librazio minimoa longitudean ($l = -7,9^\circ$).

25 19:45etan, Ilberria. Perigeoarekiko gertutasunak, normalean baino marea bizi handiagoak sortuko ditu.

26 01:07tan, Perigeotik pasatuko da, Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena 357.227 km (aurreko apogeoan baino 48.989 km gutxiago). 2017ko gertueneko perigeoa izango da.

27 02:21etan, konjuntzio geozentrikoan Marterekin, 5,3^{ra}.

31 librazio maximoa longitudean ($l = 7,3^\circ$).

31 11:59tan, Goranzko nodotik pasatuko da.

31 16:23tan, konjuntzio geozentrikoan Leoko Regulo izarrarekin, 0,3^{ra}.

PLANETAK MAIATZEAN (LURRAREN ORBITA-ABIADURA: 107.280 km/h)

Merkurio (Zailtasun handiz, gauaren amaieran ikusi ahal dugu) orbita-abiadura 172.440 Km/h

Eguzkia baino 45 minutu lehenago azalduko da ekialde ipar-ekialdeko zeruertzetik gertu, disdira ahularekin, behaketarako zailtasun handia aurkeztzen du. Igoera zuzena 1h32m eta 3h artean, deklinazioa 8° eta 14° bitarte, Hilabetea Piscisen hasiko du, Cetusera pasa eta Ariesen amaitzeko. Magnitudea 3,0tik 0,2ra areagotuko da.

Artizarra (Gauaren amaieran ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 126.000 Km/h

Hilabete osoan ez da ekialdeko zeruertzetik 10° eta 12° baino gehiago urrunduko, eta ondorioz honen behaketak ere, zailtasunez lortuko dira. Igoera zuzena 0h eta 1h artean, deklinazioa 2° eta 7° bitarte. Hilabete guztia Piscisen emango du. Magnitudea -4,6tik -4,3ra jetsiko da.

Marte (Gauaren hasieran ikus daiteke) orbita-abiadura 86.760 Km/h

Gauaren hasieran ikusi ahal izango dugu mendebalde ipar-mendebaldeko zeruertz gainean. Eguzkia sartu eta bi ordu t'erdia ezkutatu da hilaren 1ean, eta Ordu t'erdia baino lehenago 31an. Igoera zuzena 4h eta 5h artean, deklinazioa 22° eta 24° bitarte. Hilabete guztia Tauron emango du. Magnitudea 1,9an mantenduko da.

Jupiter (gauaren lehen erdialdea pasata ikusten jarrai daiteke) orbita-abiadura 47.160 Km/h

Eguzkia sartu eta ordu erdira ikus daiteke hegoalde hego-ekialdeko zeruertzetik 30^ºra. Behaketarako egoera onean aurkitzen da. Igoera zuzena 13h, deklinazioa -4^º. Hilabete guztia Virgon emango du. Magnitudea apur bat jetsiko zaio, -2,4tik -2,3ra.

Saturno (gauaren bigarren erdialdea baino lehenagotik ikusiko dugu) orbita-abiadura 34.560 Km/h

Ekialde hego-ekialdeko zeruertzetik azalduko da, geroz eta lehenago; 22:40etan hilaren 1ean eta 20:30etan hilaren 31an. Mendebalderuntzko eretrogradazioan darrai, ondorioz Sagitariotik Ofiucon pasako da hilaren 18an. Behaketarako egoera hobetuz joango da ekainaren 15 arte, oposizioan aurkituko denean. Igoera zuzena 17h, deklinazioa -22^º. Hilabetea Sagitarion hasi eta Ofiucon amaituko du. Magnitudea areagotuz doa 0,2tik 0,1era.

Hilaren 03an 17:21etan, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Hilaren 11an 15:23etan, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera.

Hilaren 19an 14:57tan, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Hilaren 27an 12:53etan, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera.

Urano (ezin izango dugu ikusi hilabete honetan) orbita-abiadura 24.480 Km/h

Hilabete honetan, europatik ezin izango dugu ikusi. Igoera zuzena 1h, deklinazioa +9^º. Hilabete guztia Piscisen emango du. Magnitudea 5,9an mantenduko da.

Neptuno (Hilabete honetan ezin izango dugu ikusi) orbita-abiadura 19.440 Km/h

Hilabete honetan, europatik ezin izango dugu ikusi. Igoera zuzena 23h, deklinazioa -7^º. Hilabete guztia Acuarion emango du. Magnitudea 7,9an mantenduko da.

MAIATZEKO BESTE EFEMERIDE BATZUK

- Hilaren 1ean larunbata, eguerdian, 2.457.875. egun juliotarra hasiko da.
- Egunak 14 ordu eta 09 minutuko iraupena du hilaren 1ean, eta 15 ordu eta 10 minutukoa hilaren 31an.
- Hilaren 6an, lurrak Halley kometaren igarotzeek (azkena 1986an) utzitako hauts kosmiko lorratza zeharkatuko du, Eta Acuaridaz izeneko izar iheskorrak sortuaz. Urriaren 21ean, lurrak lorratz berbera pasako du, baina beste puntu batetik, Orionida izeneko izar iheskorrak sortuaz.
- Hilaren 14ean, 06:20etan, eguzkia itxuraz Tauro konstelazioan sartuko da (53,65^º).
- Hilaren 14ean, denboraren ekuazioak aurtengo bere lehen maximo negatibora iritsiko da: -3m 41s.
- Hilaren 20ean, astrologiaren arabera, eguzkia Geminis konstelazioan sartuko da (60^º). Zodiakoaren zeruko mugek eta izen bera daramaten zodiakoko konstelazioak ez dira berdinak.
- Hilaren 27an, teorikoki, musulmandar hejiraren 1438. urteko Ramadam hilabetearen lehen eguna.